



DIRU SARRERAK

HASIERAKO DIRU-SARRERAK:

Gure proiektua aurrera eramateko beharrezko diru iturriak honako puntuetan laburbildu ditugu:

- Bazkideen ekarpenak: hiru bazkide gara eta bakoitzak 1500 euro jarriko ditugu. Beraz, 4500 euro aterako ditugu gure aurrezkietatik.
- Diru laguntzak: Aliantza egingo dugu emakumeen eskubideak defendatzen dituzten elkarte batzuekin. Horrek, ikusgarritasun handia helaraziko digu eta, horrez gain, gure proiektua aurrera eramateko beharrezkoak diren gastu batzuk asetzeko baliagarriak izango dira.
- Crowdfunding: Gure ideia Verkami izeneko web orrian eskegiko dugu, honen bitartez, aplikazio hau aurrera eramanez nahi duten pertsonak aurrez aurretik diru kantitate bat jarriko dute sari bat jasotzeko. Emakunderekin egindako aliantzari esker, beraiek, produktu batzuk oparitutako dizkigute Crowdfundingean jartzeko.

Honen bitartez gure helburua 2000 euroko ekarpenak izatea da. Zer esanik ez, ordainduko duten diru-kantitatearen araberakoak izango dira sariak.

5 euroko ekarpenak egiten dutenentzat, parte hartzeagatik eskerrak emango dizkiegu eta instagrameko kontuan aipamen berezi bat izango dute, aldiz, 10 euroko ekarpenak egiten dutenentzat, aurrekoaz aparte, Emakundek oparitutako kamisetak jasoko dituzte. 15 euroko ekarpenak egiten dutenentzat, aurreko guztiaz gain, oihalezko poltsak jasoko dituzte, Emakundek oparitutakoak baita ere. Hona hemen, kamiseta eta oihalezko poltsen eredua:



APLIKAZIOA BEHIN SORTUTA:

- Hasierako inbertsioaz gain, nahiz eta gure aplikazioa dohainik izan, deskarga bakoitzeko diru-kantitate bat irabaziko dugu. Google Play, Androiden dagoen zerbitzuan deskargatuz gero, 0.016 euro irabaziko ditugu, beste alde batetik, App Storen deskargatuz gero, 0.89 euro irabaziko ditugu. Instagrameko kontuaren arrakasta ikusita, 100.000 deskarga izango ditugu gutxi gorabehera lehenengo hilabetean.

